



2019ko HAUTESKUNDE OROKORREN ONDOKO INKESTA (2019ko maiatza) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gai nagusia maiatzaren 28ko Hauteskunde Orokorretan EAeko biztanleek izandako hauteskunde portaera izan da.

Landa lana Hauteskundeen ondoko egunetan egin zen, 2019ko apirilaren 29tik maiatzaren 1a bitartean.

INTERESA ETA HAUTESKUNDE-KANPAINAREN JARRAIPENA

Hauteskundeekiko interes handia eta informazioaren jarraipen zabala

Herritarren %79k diote interes handia edo nahikoa izan dutela iragan apirilaren 28ko Hauteskunde Orokorrekiko; interesa igo egin da 2016ko Hauteskunde Orokorrekin alderatuta (orduan %54 izan zen).

Inkestatuen %73k jarraitu du hauteskunde-kanpaina gutxienik astean bi hiru egunetan telebistaren bidez; %54k egunkariaren bidez eta %39k irratien bidez.

Nabarmen igo da kanpainari buruzko informazioa Interneten edo sare sozialen bidez jarraitu duten herritarren portzentajea aurreko hauteskunde autonomiko eta orokorrekin alderatuta (%28k 2015eko Orokorretan eta %50ek oraingo hauteskundeetan); portzentaje hau %86raino igo da gazteenen artean.

Hauteskunde hauek hizketa gai izan dira, askotan edo noizean behin, familiarekin %75arentzat, lagunekin %64rentzat eta lankide edo ikaskideekin %46rentzat; 18 eta 29 urte arteko biztanleek gainerakoek baino gehiagotan izan dituzte hauteskundeak hizketa gai (%83k eta %85ek, hurrenez hurren, familia eta lagunekin). Ingurune hurbilean hauteskundeek eskaintako arretak 2012tik hona egindako hauteskunde orokor eta autonomikoek izandako arreta gainditu du.

Jendartearen %72k hautagaien baten elkarrizketa edo debaterik ikusi edo jarraitu du hauteskunde-kanpainan, %56ak alderdiren baten programa edo propaganda irakurri du eta, aldiz, soilik %7 joan da bilera edo mitinen batera.

Bestalde, herritarren %53k hauteskunde-aurreko inkesten berri izan dute, eta horietatik %11k diote botoa erabakitzerakoan asko edo nahikoa hartu dituztela kontuan.

BOTOARI BURUZKO IRITZIAK ETA HAUTESKUNDE PORTAERA

Botoa emateko (edo ez emateko) erabakia gehienetan kanpaina hasi aurretik hartua zegoen eta konbentzimendua oso altua izan da aurreko hauteskundeekin alderatuta

Herritarren %58k diote botoa erabakitzean batez ere Euskadirekin lotutako gaiek eragin dietela (%44k 2016an), %20k diote Espainiako gaiek eragin dietela gehiago eta %16k biek eragin dietela.

Boto-emateen %87k kanpaina hasi aurretik erabakita zuten botoa ematera joango zirela, %9k kanpainan zehar erabaki zuten, %1ek hausnarketarako egunean eta %3k Hauteskundearen egunean.

Azkenean botoa ematera joan ez zirenen artean, %61ek kanpaina hasi aurretik erabaki zuten, %8k kanpainan zehar, %3k hausnarketarako egunean eta %22k Hauteskundearen egunean bertan.

Herritarren %71k botoa konbentzimenduz eman zuten, hainbat zalantzekin %11k eta aukera txarretan onena zela uste zutelako %17k. 2016ko Hauteskundeekin alderatuta, gehiago dira konbentzimenduz eman zutela botoa diotenak (%61 ziren orduan).



Botoa ematera joan zirenen %98 konforme daude emandako botoarekin. Botorik eman ez zutenen artean, %12k diote, emaitzak ikusita, nahiago luketela botoa ematera joan izan balira.

Apirilaren 28an botoa eman zutela dioten inkestaturen erdiek esan dute beti alderdi berari eman ohi diotela botoa (%50); %20k normalki alderdi berari eman ohi diotela botoa; %27k kasuan kasu gehien konbentzitzen duenaren arabera eta %2k botoa eman zezakeen lehen aldia izan dela.

EMAITZEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Gehien-gehienek diote Espainiako eta Euskadiko emaitzak positiboak direla

Herritarren %93k dakite PSOE izan dela Espainian botorik gehien lortu dituen, eta %81ek Hauteskuendean emaitzak gehienbat positiboki baloratu dituzte. Balorazioa nahikoa positiboagoa da 2016ko Hauteskuendetakoa baino, orduan %37k baloratu zituzten positiboki, hauteskunde horietan PP izan zen irabazle.

Euskadin boto gehien lortu dituen alderdiari buruzko ezagutza txikiagoa da, %88k dakite EAJ izan dela. Euskadiko emaitzen balorazio positiboak (%89) Espainiako emaitzen balorazio positiboak gainditzen du eta 2016ko Hauteskuendetako emaitzena baino askoz altuagoa da; une hartan Elkarrekin Podemos izan zen garailea.

GOBERNU OSAKETA

Nahiago den aukera PSOE+Elkarrekin Podemos koalizioa da

EAEko herritarrek PSOE eta Elkarrekin Podemosen arteko hitzarmenaren alde egingo lukete Espainiako Gobernuaren osaketarako (%48k aipatu dute gehien nahiko luketen aukeratzat). %12k nahiago lukete PSOE bakarririk gobernatzea; %8k PSOE, Elkarrekin Podemos eta alderdi nazionalistek osatutako gobernu, beste %5ek PSOE eta alderdi nazionalistek osatutakoa, %4k PSOE eta Ciudadanosek osatutakoa, eta %3k bestelako gobernu osaketa batzuk.

BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK

Batzar Nagusietarako Hauteskuendetan parte-hartzeko asmo zabala

Herritarren %88k diote "bai, ziur" joango direla botoa ematera Batzar Nagusietarako hurrengo hauteskuendetan eta %3k "seguruenik bai"; joateko asmoa duten horietako %69k diote alderdi berari emango diotela botoa, %17k oraindik ez dakite eta %11k beste alderdi bati emango diotela.

Hurrengo Batzar Nagusietarako Hauteskuendetan irabazle izatea nahiago den alderdiari buruz galdetuta, %41ek nahiko lukete EAJk lortzea boto gehien, %15ek EH Bilduk, %5ek PSE-EEK, %4k Elkarrekin Podemosek eta %1ek PPK. Herritarren herenak (%32k) ez dute iritzirik eman.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 880 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,37\%$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2019ko apirilaren 29a eta maiatzaren 1a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 8an